



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideei dagokienez, gure lana aurrera eramateko zenbait kostu finko zein aldakorrei egin beharko diegu aurre. Kostu finkoei dagokienez, interneta, ura eta gasaren kostuak ditugu. Kostu aldakorrei dagokienez, argia, gasolina, inpresioa, inpresio papera, inpresio kartutxoak, argazkiak ipinitzeko biptikoak, albumak, CD-ak... ditugu. Hauetaz gain, Lazkaoko etxebizitza bateko gela bat dugu lan eremu bezala. Lan egiteko beharrezkoak diren materialak ditugu: Mahaia, aulkiak, apala, ordenagailua, kamera, inprimagailua eta inprimatzeko paperak eta biptikoak.

Baliabide intelektual eta giza baliabideetan, Asier eta bideoak muntatzeko eta sortzeko duen gaitasuna dugu, Leireren argazki ederrak ateratzeko gaitasuna, Lierniren antolaketa eta harremanerako gaitasuna eta Jokinen merkaturatzeko abilezia eta xarma dugu.

Finantza baliabide bezala bakoitzaren aurrezkiak ditugu, urte askoz aurreztutako dirua proiektu honetan inbertitzea egokia iruditu zaigu.